

CATALINA OSCARIZ, BERPIZKUNDEKO PINTORE NAFARRA



Santa Agedaren erretaula, Sarrigurendik ekarria.
Oscariztarren lantegia, XVI. mendea, ohol gaineko olioa.

BISITARAKO JARRAIBIDEAK

Iruñean, 20. (e)koaren(e)an

.....
.....

Irakasle agurgarria:

Aditzera ematen dizugu “Catalina Oscariz” jarduera hitzartua duzula Nafarroako Museoan, ondoko egunetan:

Data:..... Ikasle kop. Ordua: Euskaraz.

Data:..... Ikasle kop. Ordua: Euskaraz.

Data:..... Ikasle kop. Ordua: Euskaraz.

Data:..... Ikasle kop. Ordua: Euskaraz.

Mesedez, **esandako orduan** etorri. Jarduera ordu eta erdikoa da, gutxi gorabehera.
Irakasleak **taldearekin** egon behar du, **isilik**, bisitan.

Bisita prestatzeko jarraibideak Nafarroako Museoko web orrian dituzu <http://www.cfnavarra.es/cultura/museo> “eskaintza didaktikoa”, “koadernoak” atalean.

Zure taldearekin etortzen zarenean, bisita berresteko orria ekarri.

Edozein kontsulta egin nahi baduzu, deitu 848 426493 telefonora.

Stua.: ANA REDÍN
DIDAKTIKA ARLOA
MUS^{NAFARROAKO}**LOA**

BISITA

BISITAREN AURRETIK. IKASGELAN

Ziur aski, ikasleek lehen aldia dute museo batean. Horregatik da garrantzitsua motibatuak etortzea, ongi pasatzea Nafarroako Museoan.

Komenigarria da umeeek jakitea horrelako toki publikoetan zer jokabide izan:

- Ahots-tonu normalaz mintza daitezke, zalapartarik atera gabe.
- Piezetara hurbildu daitezke, baina ukitu gabe.
- Piezetara hurbildu nahi badute, txandaka egin, denek aukera izan dezaten.
- Seinalatu dezakete, baina ez erabili horretarako arkatza edo boligrafoa.
- Ezin da txiklerik mastekatu, ezta ogitartekorik eta abarrik jan ere.
- Ez jarri hormen kontra. Geletan badira eserlekuak atsedean hartzeko eta idazteko. Denontzako tokirik ez bada, lurrean eseri, beste bisitariei bidea ez galarazteko moduan.

IRISTEAN. MUSEOKO HARRERA-LEKUAN

Ikasleek bizkar zorroak eta berokiak jantzitegian utziko dituzte.

BISITA. BIGARREN SOLAIRUAN

Hemen monitorea izanen duzue zain. Hark adieraziko dizkie ikasleei Berpizkundeko pinturari buruzko zenbait xehetasun. Ohol gaineko olioak ikusiko dituzte, baita Orizko horma-pintura ere.

Iraupena, gutxi gorabehera: 60 minutu.

Berpizkundeko artea ikusteko ibilbidea

Jardueraren ondoren, zuen kasa zenbait gauza ikusteko aukera duzue: Museoko fatxada, elizako eskultura, pintura eta Berpizkundeko erretaulak.

Errukiaren Andre Mariaren Ospitalea, gaur egun Nafarroako Museoaren egoitza dena, 1556an inauguratu zen. Eraikin zaharretik fatxada eta eliza baizik ez dira kontserbatu.

Orizko horma-pinturak

Berpizkundeko arteak arkitektura eta eskultura klasikoetan bilatu zituen ereduak. Izan ere, pinturan zeri jarraitu gutxi zegoen eta anatomia eta perspektibaren legeak naturaletik hartzea erabaki zen. Perspektibaren bidez, hirugarren dimentsioaren ilusioa sortu zuten, bi dimentsioko azalera baten gainean.



Orizko horma-pinturak. XVI. mendea.
Grisaila tenplean

Artelan gehienek erlijio gaiak jorratu zituzten, baina gai mitologiko eta profanoak ere sartu ziren, Orizko horma-pinturetan adibidez. Pintura horietan zehatz-mehatz azaltzen da Karlos V.a enperadoreak printze luterano alemaniarren aurka lortu zuen garaipena.

Errukiaren Andre Mariaren Ospitaleko elizan diren erretaulak.



San Blasen erretaula. XVI. mendeko oholak. XVIII. mendeko mazoneria. Anton Arara eta Pedro Lasao, pintoreak. Migel Gamiz irudigilea eta zizelatzailea. Ohol gaineko tenple koipetsua.

Erretaula irudi multzo bat da, historia edo gertakari sakratu bat azaltzen duena. Helburua du sinestunei mezu bat ematea eta eliza eta kaperak apaintzea. Erretaularen egitura eta estiloa aldatu egin dira: badira xumeak, eramangarriak; beste batzuk, ordea, arkitektura lan izugarriak ditugu. Azken horietan arkitekto, eskultore, pintore, estofadore eta urreztatzaileek hartu ohi zuten parte. Zur polikromatuz eta ohol gaineko pinturaz eginak izaten dira, baina beste material batzuetakoak ere badira.

Errukiaren Andre Mariaren Ospitaleko elizan Berpizkundeko erretaula batzuk eta erretaula nagusi barrokoa daude.

IRTEERA

Jarduera bukaturik, ikasleak irakaslearekin aterako dira. Bera arduratuko da hurrek jantzitegian utzitakoa hartzeaz.

HELBURU DIDAKTIKOAK

Ikasleekin ondoko helburuak landu nahi dira:

- _ Artelanak ezagutzeko interesa eta ikusteko gogoia bultzatu nahi da. Astialdia museoak, monumentuak eta erakusketak ikustera bideratzea.
- _ Museoetako eta ondarea dagoen lekuetako jokabide arauak betetzea.
- _ Gauzei erreparatzeko joera piztea haurrengan.
- _ Ulertzeko eta adierazteko gaitasuna lantzea, alor hauetan: plastikan, ikustekoan, ahozkoan.
- _ Norberaren bizilekuko edo beste toki batzuetako artelanak ezagutu, baloratu eta errespetatzea.
- _ Ondarea errespetatzea eta haren balioaz jabetzea.

EDUKIAK

PINTATZEKO TEKNIKAK ETA MATERIALAK

PINTURA: gainazal batean pigmentuak edo koloreak emateko artea.

Historian pigmentu eta gainazal ugari erabili dira, pintatzeko teknika askoren iturri. Pinturaren alde material honi hurbiltzeko, nahitaezkoa da oinarritzko kontzeptu batzuk garbi izatea.

EUSKARRIA: pigmentua eta aglutinatzailearen nahasketa ematen den edozein gainazal: ehuna, buztina, larrua, zura, harria, horma, papera, metal xaflak, oihalak, plastikoak, etab.

Nafarroako Museoan ondoko hauek daude:

Ohola. Egipto Zaharretik aplikatu zen pintura zuraren gainean. Zehatz-mehatz prestatu behar da: egurra lehortu, lixatu, piezak ongi itsatsi, gainazala prestatu.

Kobre xaflak. Gutxitan erabilia eta XVII. mendetik apenas baliatua. Ondorengo kobre gaineko pinturak zaharren eitekotzat hartzen dira.

Oihala. Barrokotik aurrera zurari eta kobrezko xaflei aurea hartu zien. Lehengai gisa lihoa, kotoia, kalamua edo jutea erabiltzen dira. Lehenbizi atzealdea iragazgaiztu behar da eta, gero, aurrealdeari inprimazio bat eman (igeltsua, kaseina, Espainiako zuria). Ondoren, bastidorea ongi tenkatu.

Horma. Luze irauteko hezetasunik gabeko pareta bilatu behar da. Horma karez zarpeatu eta azken eskualdiaren gainean pigmentuak ematen dira: freskoan zein tenplean.

Papera, kartoia etab. Euskarri honen ganean pastela, akuarela edo tintak ematen dira. Zailago da horiek ongi irautea.

PIGMENTUAK: koloratzaileak organikoak edo ez-organikoak izan daitezke.

AGLUTINATZAILEAK: substantzia likidoak, denbora pasa ahala solido bihurtzen direnak. Horietan urtzen dira pigmentuak euskarriari eransteko. Ez dute pigmentuaren kolorerik aldatu behar eta lehortzean gutxi uzkurtuko dira. Aglutinatzaile bakoitzak baditu bere disolbatzaileak. Aglutinatzailearen arabera ohi dira teknikak eta hona hemen ezagunenak:

Koipe teknikak. Kimikoki aldatu ezin diren olioak erabiltzen dituzte aglutinatzaile gisa.

- **Enkaustika.** Oinarria argizaria du, beroan edo hotzean eman daitekeena. Orain haurrak argizari sintetikoek baliatzen dira. Egiptoko artean erabilia. Agoarrasean edo bero-beroan urtu daitezke.

- **Olio.** Intxaur, lo-belar edo linazi olio, azken hau zabalduena. Alemanian hasi zen erabiltzen XII. mendean, nahiz eta ez erabat hedatu XV. mendea arte, Van Eyck anaiek linazi olio ateratzeko teknika hobetu arte, alegia. Disolbatzaile gisa olio hegazkorrak ematen zaizkie, osoki lurruntzen direnak, trementina-esentzia edo agoarrasa, konparazio batera.

Teknika mistoak. Aglutinatzaile gisa emulsioa edo gai urtsu eta oliotsuen nahasketa erabiltzen dutenak dira:

- **Tenplea.** Landareen (pikondoa) edo animalien gaien (gazura, kaseina edo deskoipetutako eta azidotutako esnea) destilazioko lekedak, larrua edo kartilagoak (untxienak, arrainenak, etab.) eta gomak egosiz. Erdi Aroko eskuizkribuetan erabili zen XVII. mendea arte. Disolbatzaileak pintura lehortu baino lehen ematen dira.

- **Tenpera edo gouachea.** Arrautza. Arrautza-tenplea tenpera mota bat da. Eskolako tenperen aglutinatzailea sintetikoa da.

Teknika urtsuak. Aglutinatzailea ura da eta beste osagai batzuk gehitzen zaizkio aiseago itsasteko (goma arabigoa, destrina, eztia, etab.).

- **Akuarela.** Urpintura, pintzelaz paperean ematen dena.

- **Tintak eta urtintak.** Idem. Kolorerikgabeak.

- **Freskoa.** Zarpeatu berri den pareta hezearen ganean kare-uretan disolbatutako pigmentua. Kareak kimikoki erreakzionatzen du eta kaltzio karbonato bihurtzen da, disolbatu eta aldatu ezin dena.

Teknika lehorrak. Ahal duten aglutinatzaile gutxiena erabiltzen dute. Horregatik askatzen dira aiseena euskarritik.

- **Pastela.**

- **Koloretako klarionak.**

- **Ikatz-ziriak, sanginak, albaialdea, etab.**

Teknika berriak. Pintura plastikoak, erretxina sintetikoak, laka gardenak, hotzeko esmalteak, silizio esterak, silikato likidoak, etab.

BERPIZKUNDEKO PINTURA

García Gainzaren arabera, Berpizkundeko pintura, Nafarroan, eskulturaren lagungarri baino ez da. Eskulturak pintoreak, erreztatzaileak eta estofatzaileak behar ditu, erretaulak egiteko. Aipagarriak dira, horien artean, Oscariztarrak, lankide batzuekin batera Iruñean famili lantegia izan zutenak XVI. mendean, hiru belaunalditan.

Italiako Berpizkundearen eragina Oscariztarren pinturan, konposizio orekatuetan ikusten da, baita arkitekturen bidezko ihespuntua duen perspektiba linealaren erabileran ere. Manierismoa azpildura hanpatuko irudi monumentaletan antzematen da. Emakumeen eskulturak Peruginoren edo Rafaelloren edertasun kanonari jarraikiz eginak daude.

Erdi Arotik gremioek antolatzen zituzten lanbide ikasketak eta artelanak nola egin eta saldu. Maisuaren semeak eta ikasleak 10 urte inguru zituztela hasten ziren lanean. Ezkutuan gordetzen ziren lana egiteko moduak eta, maiz, lantegiko bat baino gehiago aritzen ziren obra berean.

Erretaulak egiteko kontratuetan ez da emakumerik ageri eta ez ziren jartzen besteren etxeetan ikasle gisa, baina litekeena da etxeko lantegietan jardutea, historiak agertzen duena baino gehiago. Catalina Oscarizen garaiko emakume pintatzaile zenbaiten izenak ezagunak ditugu: Marineta Robusti (Tintoretoren alaba), Sofonisba Angissola, Artemisia Gentileschi (Horacio Gentileschiren alaba eta Florentziako Vasari Akademiak onartutako lehen emakumea), Diana Mantovana (berak sinatutako obrak saltzeko baimena eskuratu zuen Aita Santuarengandik), Lavinia Fontana (Escorialen jardun zuen) eta beste asko, inoiz ezagutuko ez direnak.

CATALINA OSCARIZ ETA SANTA AGEDA

Otsailaren 5ean Santa Ageda eguna ospatzen da. Espainiako leku askotan egun hau emakumearen festekin lotzen da eta Euskal Herriko zenbait tokitan Santa Ageda koruak atera ohi dira gauez, kantari eta makilez lurra joz, udaberria esna dadin.

Erromatarren aurreko ohiturekin zerikusia duten eduki ezkutu horiez gain, kontaketak mahairatu ditzake beste kontu batzuk, emakumearen papera garai bateko gizartean eta oraingoan, konparazio batera. Bai Catalina Oscarizek, bai Santa Agedak beren garaiko moldeak hautsi zituzten: Catalina pintatzaile aritu zen aitaren lantegian eta bere seme Pedrok negozioa oinordekotzan eskuratzea lortu zuen. Santa Ageda, hasierako kristautasunak babestua, Siziliako kontsularen aginteari (erromatarren patriarkalismoaren eredu) aurka egitera ausartu zen eta uko egin zion kontsularen ezkontzeko mandatuari, nahiz horrek heriotza ekarri. Nafarroan matriarkatuaren oihartzunak iraun du eta erromanizazioa, Berpizkundea eta, herri batzuetan, arrazionalismo ilustratua ere gainditu ditu.